



EBAZPENA, 2022ko otsailaren 11koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2021-2022 ikasturtean unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko beste goi-mailako ikasketa batzuk egiteko bekak ebazten dituen.

2021eko ekainaren 1eko aginduaren bidez (2021eko ekainaren 30eko EHAA), Hezkuntzako sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2021-2022ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

Hirugarren ebazpen-proposamena 2022ko urtarrilaren 26an argitaratu eta jakinarazi ondoren, proposamena onartu duten pertsonen beka orokorraren 4. ebazpena argitaratu da, eta orain arte ebatzi diren alegazioak argitaratu dira.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozedurako gainerako arauak bete ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehen artikulua.- 2021-2022 ikasturteko unibertsitate-beka orokorraren eta goi-mailako beste ikasketa batzuen deialdian parte hartzen duten eskatzaileei behin betiko 4. ebazpena jakinaraztea. Eranskinean zerrendatzen dira onartutako edo ukatutako eskabideak. Eskatzaileek beren eskaerari buruzko ebazpenaren xehetasunetara jo dezakete beken aplikazioaren bidez.

Bigarren artikulua.- Eranskinean ageri diren eskatzaileei jakinaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioketela Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari. Errekurtoa aurkezteko epea hilabetekoa da, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 11a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria